



JARDUKETAREN AZALPEN LABURRA:

Portugaleteko Udalak zenbait hamarkada daramatza emakumeen egoera hobetzeko eta udalerriko emakume zein gizonen berdintasuna sustatzeko programak eta ekintzak egiten. 80ko hamarkadan, Portugaleteko Udala konturatu zen emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko jarduketak jarri behar zirela abian.

Hartara, 1987. urtean, Emakumeentzako Aholkularitza Zentroa sortu zuen, emakumeen artean zenbait jokabide suspertzeko eta emakumeak izateagatik jasaten zituzten arazoak konpontzeko.

2000. urtean, estatu-mailan, erkidegoan eta tokian-mailan berdintasunerako politika aktiboagoak agertu zirenean, Udala Berdintasunerako Lehen Jarduketa Plana egiten hasi zen partaidetzazko metodologiaren bidez. Plana egiteko prozesua oso metodologia berritzailea izan zen. Hain zuzen ere, honako hauxe izan zuen helburu nagusi, eta, gaur egun ere, horixe bera da, une honetan 3. plana baitago indarrean: planean bertan ahalik eta eragile sozial gehien inplikatzeari eta emakume zein gizonen egoeraren ikuspegi zabalagoa edukitzea. Horretarako, Berdintasun Batzorde Mistoa eratu zen, emakume nahiz gizonen berdintasunezko egoera bermatu zitzaketen helburuak urratsez urrats betetzean beharrezkoak ziren ekintzak sistematizatu, ebaluatu eta hobetzeko. Horrez gain, sentsibilizazio orokorra ere sustatu beharra zegoen emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespenaren inguruan.

Berdintasun Batzorde Mistoa udal-partaidetzapeko aholkularitza-organoa da, eta emakume zein gizonen aukera-berdintasunerako prozesuetako udal jarduketa-planen prestaketa, jarraipena eta betearazpena sustatzea dauka helburu nagusi. Lan-talde horretan, honako hauexek parte hartzen dute: udaleko zenbait sailtako udal-teknikariak, udalean ordezkariak duten talde politiko guztietako ordezkariak, udalerriko elkarteetako ordezkariak (elkarte parte-hartzaileek eurek hautatu dituzte modu demokratikoan), sindikatu etako ordezkariak, hezkuntza-klaustro etako ordezkariak eta guraso-elkarte etako ordezkariak. Beraz, oso talde heterogeneoa da, eta prestakuntza, arduraldi, interes politiko zein esperientzia pertsonal desberdinak dituzte. Hori dela eta, oso aberasgarria da, hain fenomeno korapilotsuan jarduteko orduan.

Aldian aldiko bileretan eta azken 12 urteotan, batzuetan kanpoko



eragileek dinamizatu eta koordinatzen duten Berdintasun Batzorde Mistoak zenbait plan egin ditu, testuinguru sozial, juridiko eta instituzionala aztertu ondoren. Horrela, bada, berdintasunerako ekintzak eta politikak sortu ditu, oso garrantzi handia eman dio planen ebaluazioari eta garatu beharreko lan-arloak zehaztu ditu.

III. PLANEKO ARDATZAK

.- EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA

Kontzeptu honen arabera, generoa zeharkakoa izateko oinarritzko faktoreak hartuko dira kontuan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea betearazi eta garatzeko asmoz.

Bere printzipio orokorren barruan, 4/2005 Legeak aldarrikatzen du generoaren ikuspegia kontuan hartu beharra dagoela botere publikoek garatutako politika eta ekintza guztietan. Horrela, bada, desberdintasunak desagerrarazi eta emakume zein gizonen berdintasuna bultzatuko da (3. artikulua).

.- EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA BALIOEN ALDAKETA

Jarduketa-lerro honen ondorioz, emakumeek baliabideen eta bizitzan bertan eragina duten erabakietan daukaten boterea eta agintea handiagotu behar dira.

Emakumeek banakako eta taldekako kontzientzia hartzeko prozesua izango denez, partaidetza handiagoa eduki ahal izango dute erabakiak hartzeko, boterea eskuratzeko eta eragin-gaitasuna izateko prozesuetan.

.- BATERAKO ERANTZUKIZUNA KONTUAN HARTZEN DUEN ANTOLAERA SOZIALA

Baterako erantzukizuna kontuan hartzen duen antolaera soziala ezartzean, bizitza pertsonalaren, familiaren eta lanaren uztarketa sustatzen da, baterako erantzukizuna bultzatzen delako etxeko lanetan, enpleguko egiturak bizitza pertsonalaren zein familiaren premietara egokitzen direlako eta gizarte-zerbitzu bateratuak horren arabera atontzen direlako.



.- EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Lerro estrategiko honen bidez, epe laburrerako jarduketak ezarriko dira, eta behar besteko neurriak zein baliabideak egituratuko dira, biktimak babesteko eta atentzio integrala eskaintzeko. Horrez gain, sentsibilizaziorako zein prebentziorako jarduketak ere izango dira lehentasunezkoak, euren bidez ageri-agerian jarriko delako emakumeen aurkako indarkeria-modu guztiak emakume eta gizonen desberdintasunaren ondorioz sortutako arazo soziala direla. Hartara, apurka-apurka gutxitu ahal izango da, harik eta behin betiko desagertu arte.

www.portuigualdad.info web orriaren bidez, Berdintasun Batzorde Mistoak jorratutako gai guztien berri ematen die Portugaleteko biztanleei, eta ekarpenak edo iradokizunak egiteko aukera ere eskaintzen die. Iradokizun horiek balioetsi eta programetan hartzen dira kontuan, eta, horrela, herritarren partaidetzari ematen zaio lehentasuna. Izan ere, Portugaleteko Udalarentzat funtsezkoa da herritarrek arazo horretan inplikatzeari eta laguntzeari. Partaidetzapeko jarduketan oinarria denez, are eraginkorragoak dira, inolako zalantzarik gabe.

Jarduketa (edukiak, estrategiak, jarduerak eta metodologia):

HONA HEMEN PLANAREN EDUKIA: 4 ARDATZ ESTRATEGIKO, 7 JARDUKETA-ARLO, 16 HELBURU ETA 59 EKINTZA.

PLANAREN EZAUGARRIAK:

4 urteko iraupena izango du, 2011-2014ko epealdirako egin da-eta. Partaidetzapean egin da, eta, horretarako, aurretiazko diagnostikoa hartu da kontuan, datuak eguneratu dira, aurreko plana ebaluatu da eta udal-langileek zein Berdintasun Batzorde Mistoak bete-betean parte hartu dute bertan.

Helburu eta ekintza bideragarriak azaltzen dira, udal-sailek eta erakunde arduradunek aurreikusitako epealdian eta behar besteko baliabideen bitartez garatu ditzaten.

Gizarte Ongizate Sailak plana bera koordinatu eta bultzatuko du.

Plan ireki bezain malgua da, eta urteko plan eragileak egingo dira.

Plana bera ebaluatu egingo denez, behar den moduko adierazleak erabiliko dira, helburuen lorpena etengabe ebaluatu ahal izateko.



Plan honetako jarduketa-programaren ondorioz sortutako helburuak eta ekintzak lortzeko, planaren bultzada, jarraipen eta ebaluaziorako egiturak ezarriko dira:

Bultzadarako egitura Gizarte Ongizate Sailean egongo da kokatuta, eta hiru lagunek lan egingo dute bertan: arduradun politikoak, arduradun teknikoak eta Berdintasuneko teknikariak.

Bestetik, Berdintasun Batzorde Mistoa izango da Berdintasun Planaren koordinazio eta jarraipenerako egituraz arduratuko dena, eta honako hauexek izango dira bere funtsezko eginkizunak:

Emakume eta gizonen berdintasunerako udal jarduketa-planen prestaketa eta jarraipena sustatzea eta plan horietako helburuak Portugaleteko udalerrian bertan betearaztea.

Emakumeen aldeko zerbitzugintza berezia sustatzea.

Portugaleteko udalerriko emakumeen egoerari buruzko azterketen garapena eta zabalkundea sustatzea.

Emakumeen eskubideak benetan garatzeko moduko udal-jarduketak aztertzea, bultzatzea eta zabaltzea eta eraldaketarako proposamenak egitea, bi sexuen benetako berdintasun eraginkorra zailtzen duten eragozpenak desagerrarazteko.

Udaleko zinegotzigoek emakumeen inguruan egindako jarduerak eta proiektuak koordinatzea.

Arlo guztietako sentsibilizazio eta informaziorako kanpainak sustatzea, emakumeen bizi-kalitatea hobetzeko.

Azkenik, Udalak udalen arteko Berdintasunaren koordinazio-egituraren parte hartzen du, hau da, Euskadiko Udalek Berdintasunaren alde eta Indarkeriaren aurka eratutako Sarean. Aurrerantzean ere, bertan jarraitzeko asmoa dauka, gainera.

III. Plan hau betearazteko, urteko programa eragileak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan. Urteko programa eragile horiek, gainera, Gizarte Ekintzako Batzordeak onartuko ditu, eta honako hauxe izango da euren edukia:

Helbururako lan-planak, ekintzak, hasierako egoera, aurreikusitako



emaitzak, egin beharreko jarduerak, inplikaturako pertsonak eta erakundeak, egutegia, aurrekontua eta ebaluazio-adierazleak.

Programa eragile bakoitzerako aurrekontua globala izango da.

Ebaluaziorako sistema ere egin da, eta prozesua, tresnak eta ebaluaziorako aurreikusitako adierazleak kontuan hartuko dira bertan.

V1 adierazleak

- Programak Azaroaren 25erako, hau da, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egunerako antolatutako jardueren kopurua eta mota (urtero).
- Portugaleteko eta EAEko emakumeen aurkako erasoen salaketa publiko eta sistematikoen kopurua.
- DBHko gazteentzat egindako tailerren kopurua, jokabide bortitz bezain sexistak prebenitzeko eta tratu onak sustatzeko.

V2 adierazleak

- Emakumeek hiri-segurtasunaren inguruan egindako iradokizunak eta kexak jasotzeko eremua.
- Jasotako kexen kopurua.
- Konpondutako kexen kopurua (egindako aldaketa).
- Segurtasun-maparen zabalkunderako kanpaina: sentsibilizatutako lagunen kopurua, sexuaren arabera.

V3 adierazleak

- Udaleko laguntza-sarearen barruan, emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeentzat sortutako zerbitzuak.
- Indarkeriako Emakume Biktimen Arreta Hobetzeko abian jarritako Tokiko Protokoloa.
- Tokiko Protokoloaren barruan abian jarritako jarduketaren kopurua eta mota.
- Indarkeriako emakume biktimen arretaren arloan zabalduko baliabideak eta zerbitzuak (komunikabideak).
- Tokian tokiko profesionalentzat emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egindako prestakuntza.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan prestatutako emakume eta gizonen kopurua, lanpostuaren arabera.

- Adierazle kualitatiboak

- Emakume eta gizonen berdintasunaren inguruko sentsibilizazio-maila.
- Sail/Erakundeetako langileek emakume eta gizonen



berdintasunaren arloan daukaten trebakuntza-maila.

- Emakumeek eta/edo emakumeen taldeek sailek garatutako jarduketek plangintzan daukaten partaidetza.
- Emakumeen premiak, baldintzak eta jarrerak estaltzeko eta/edo sailetako jarduketa-esparruan emakume zein gizonen berdintasuna lortzeko programa eta ekintza bereziak.
- Jarduketek edo arauak haien eraginpean dauden emakumeen egoeretan eta baldintzetan daukaten eraginaren ebaluazioa.
- Sailek sortutako agirietan lengoaia eta irudi ez-sexistak erabiltzeko prozesua (barruko eta herritarrentzako agirietan).
- Berdintasun-ekintzetarako erabilitako aurrekontuaren ehunekoa.
- Langileek emakume eta gizonen berdintasunaren inguruan daukaten sentsibilizazio-maila.
- Langileek emakume eta gizonen berdintasuna ezartzeko moduari buruz duten ezagutza.